

Ebazpena: R108/2023

Espedientea: E023/2021

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 15a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabakitzen dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, zehazteko norik duen ordainarazteko eskumena RIBSLk langile jakin batzuei lan-etekinengatik ordaindutako zenbatekoei dagokienez 2016ko maiatzetik abendura bitartean eta 2017an egindako PFEZren konturako atxikipenen gainean. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 23/2021 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- RIBSL merkataritza-enpresa bat da, eta 2006ko maiatzaren 26an eratu zen Bartzelonan. Enpresa-ingeniaritzako zerbitzu teknikoak ematen ditu, bai EAEn, bai EAetik kanpo.

2014ko azaroaren 4an, egoitza sozial eta fiskala Bizkaira aldatu zuen, Derioko A Bidea kaleko Xra.

2.- RIBSLk, bere jarduera garatzeko, egoitza fiskala lurralde erkidean duten langileak ditu kontratatuta, eta, ondorioz, ZAEAn aurkezten dituzte PFEZaren aitortenak. Aitorpen horietan sartzen dira RIBSLk ordaintzen dizkien eta BFAn sartzen dituen lan-etekinengatiko PFEZaren konturako atxikipenak.

3.- RIBSLk 2011tik 2017ra bitarteko ekitaldietan egindako PFEZaren konturako atxikipenei buruzko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak direla-eta, ZAEAk erabaki zuen BFAn 36.481,52 € sartu zirela bidegabeki 2016ko martxotik abendura bitartean, eta 27.257,32 €, berriz, 2017ko ekitaldian, EAetik kanpo, lurralde erkidean nahiz atzerrian, emandako lan-etekinen gainean egindako atxikipenei dagozkienak.

4.- 2020ko abenduaren 16an, ZAEAk aipatutako atxikipenak itzultzeko eskatu zion BFari.

5.- 2020ko abenduaren 17an, BFAk partzialki onartu zuen eskaera, ZAEAk 2016ko urtarriletik apirilera arteko aldiari dagozkion atxikipenen gainean duen eskubidea preskribatuta zegoela iritzita, eta 2016ko maiatzetik abendura bitarteko aldiari dagozkion atxikipenak kuantifikatzeko eskatu zion ZAEari. ZAEAk 2021eko urtarrilaren 12an jakinarazi zion BFari horien kuantifikazioa: 29.776,07 € 2016ko maiatzetik abendura bitarteko aldiari dagozkio; 27.257,32 €, aldiz, 2017ko ekitaldiari.

6.- 2021eko urtarrilaren 18an, BFAk partzialki ezetsi zuen atxikipen horien itzulketa, 11.056,62 € 2016ko ekitaldirako eta 11.573,57 € 2017rako, atzerrian egindako lanen etekinen gaineko atxikipenak direlako.

7.- 2021eko martxoaren 15ean, ZAEAk inhibitzeko eskatu zion BFari, eta 2016. urteari zegokion itzulketa-eskaera aldatu zuen (9.024,37 €). Hori 2021eko apirilaren 13an ezetsi zuen BFAk.

8.- 2021eko maiatzaren 12an, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela-eta, bete egin da BFAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa hilabeteko epean aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientean jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Atzera egitea

ZAEAk, espedientea agerian jartzeko izapidean, eskaera bat aurkeztu zuen 23/2021 zenbakiarekin izapidetzen ari zen gatazkari dagokion prozeduran atzera egindakotzat har zezaten, eta onartu zuen BFari dagokiola 2016ko maiatzetik abendura bitartean eta 2017ko ekitaldian langile jakin batzuei RIBSLk atzerrian egindako lanengatik PFEZaren atxikipenak ordainarazteko eskumena, kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan xedatutakoa, *ratione temporis* idazkera aplikagarrian. Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora galtzea eta, horrenbestez, artxibatzea ekarri du.

Atzera egitea prozedura amaitzeko moduetako bat dela jasotzen da APAPELen 84. artikuluan, EIABAREN 8. artikulua igorpenari jarraikiz.

lido horretan, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du ZAEAk eskatutako atzera egitea, ez baitago prozeduran hirugarren pertsona interesdunik, eta gatazkan sortutako auzia ez baita interes orokorrekoa, eta ez baita komeni hura bideratzea definitu eta argitu dadin. Eta, ondorioz, ebazpen hau ematen da, APAPELen 21.1 artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAk atzera egin eta, ondorioz, prozeduraren xedea galdu delako.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta RIBSL sozietateari jakinaraztea.